

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Maria Izagirre Aizpuru Mari Gallo

*Lekeitio,
Bizkaia
(1924-2017)*

Aurkibidea



Biografia



Igualdegi kalean sortu zen 1924.ean, 'Gallo' taberna gainean. Gurasoak ere lekeitiarrek zituen: ama lehorrekoa eta aita itsasokoa, kofradiako idazkaria edo "eskribintia" izandakoa. Hiru ahizpetatik nagusiena izan zen bera. Alondigako eskolan ibili ostean, gerraostean bere gurasoek hartu zuten 'Gallo' tabernan hasi zen laguntzen. Irakurtzea oso gustuko izan zuen txikitatik. [Pedro Juan Akarregi](#) arrantzaleagaz ezkondu eta zazpi seme-alaba izan zituen. Elkarrizketatzaile bat bere biloba da.

Zintak

LEK-054

- **Proiektua:** Lekeitioko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Akarregi, Leire - Goiria Mendiola, Nerea
- **Data:** 2011-10-05
- **Iraupena:** 60 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea

LEK-055

- **Proiektua:** Lekeitioko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Akarregi, Leire - Goiria Mendiola, Nerea
- **Data:** 2011-10-05
- **Iraupena:** 62 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

LEK-056

- **Proiektua:** Lekeitioko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Data:** 2011-10-05
- **Iraupena:** 49 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Pasarteak

1. Aititak kirruzko izarak egiten zituen

- **Erref:** LEK-054/002
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:01:29. **Bukatu:** 00:03:44

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Sastreak, jostunak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>Gurasoak ere lekeitiarrek zituen: ama lehorrekoa eta aita itsasokoa. Bere aitita Itziarrekoa (Deba, Gipuzkoa) zen eta kirruzko izarak egiten zituen. Oraindik baditu aititak egindako izarak. Saldu ere egiten zituen. Aitita mahatsak inausten etorri zen herrira, Santa Katalina aldean mahasti asko zeuden-eta. Bere amama ezagutu eta bertan ezkondu ziren.</p>

2. Kofradiako Martzelino "eskribintian" alaba

- **Erref:** LEK-054/005
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 00:05:07. **Bukatu:** 00:07:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Kofradia

Laburpena:

<p>Bere aitak kofradian idazkari lanak egiten zituen. Itsaso aldean Martzelino "eskribintian" alaba zen eta lehorrean Maria 'ehulia'rena. Aitak dena idatzi behar zuen eskuz, ez zegoen makinarik. Bere aitaren beharra zein zen azaltzen du. 23 urtez izan zen "eskribintia".</p>

3. Kofradiko eta Eskolapeko eskolak

- **Erref:** LEK-054/007
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:09:25. **Bukatu:** 00:11:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>Kofradiako goiko aldean don Paulino Alonsok eskolak ematen zituen. Maria hara joan zen, mutil tartera. Gerra garaian ez zegoen beste eskolarik. Nahikoa zen idazten eta irakurtzen ikastea. Irakasleek ez zekiten euskaraz eta eurek erdararik ez. Eskolapean zegoen herriko eskola, alondegiaren gainean. Eskolapeko eskolan Señorita Pilar, Señorita Segunda eta doña Eloisa Arteta nafarra ezagutu zituen.</p>

4. Eskola alondegi gainean

- **Erref:** LEK-054/009
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 00:11:23. **Bukatu:** 00:12:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

Laburpena:

<p>Eskola alondiga gainean zegoen. Alondigan ardoak gordetzen zituzten eta handik banatzen zituzten tabernetara. Jolas-orduan Eskolapera bajatzen ziren eta maistra, antza denez, alondigara joaten zen egunkaria eskatzera eta horrela ezagutu zuen maistrak bertako mutila, bere gizona izango zena.</p>

5. Txikotarekin, "prima segunda"ka, tronpan...

- **Erref:** LEK-054/010
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:12:36. **Bukatu:** 00:13:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

<p>Eskola garaian Eskolapera bajatzen ziren jolastera. Txikotarekin (soka) eta egur-ikatzarekin zenbakiak marraztu eta "prima segunda"ka aritzen ziren. Tronpaka jolasterakoan, nesken modura edo mutilen modura, desberdin jolasten zen.</p>

6. Txikotean aritzeko abestiak

- **Erref:** LEK-054/012
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:14:02. **Bukatu:** 00:14:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak

Laburpena:

<p>Txikotean (sokadantzan) aritzen zireneko abesti bi abesten ditu. Erdaraz dira abestiak. Zer esaten zuten ere ez zuten jakiten eta edozer abesten ei zuten.</p>

7. Jolasean ere mutilak eta neskak nahastu barik

- **Erref:** LEK-054/013
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:14:57. **Bukatu:** 00:16:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

<p>Mutilak beste eskola batean zeuden eta ez ziren batzen. Mutilen eskola eliza atzean zegoen. Doña Marzelina 'Surrandi' ('sudur handi') maistraren garaian, osterara, batera egoten ziren.</p>

8. Eguenetako dantzaldiak

- **Erref:** LEK-054/014
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:16:41. **Bukatu:** 00:17:59

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

<p>Eguenetan (ostegunetan) plazan musika egoten zen. Taberna zutenez, ezin izan zion mutilei ezetzik esan, bezeroak ziren-eta. Geroago, ontziolakoek gramola jarri zuten eta mutilek ordaindu egin behar izaten zuten dantzan egiteagatik. Beranduago, herriko banda hasi zen jotzen.</p>

9. Banda militarra eta herriko banda

- **Erref:** LEK-054/015
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 00:17:59. **Bukatu:** 00:19:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

<p>San Antolinetan banda militarra etortzen zen eta herritarrek agur beroa egiten zieten. Militarren bandako zuzendaria gero Lekeitioko bandako zuzendaria izan zen. Hurrengo zuzendaria valentziarra izan zen.</p>

10. Aita bandako kidea zen

- **Erref:** LEK-054/017
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:19:37. **Bukatu:** 00:21:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:

<p>Bere aitak herriko bandan gitarra jotzen zuen. Burgosen egon zen soldadu; lehenago sekula zaldirik ikusi gabeko zalditeriako sarjentua izan zen. Bere amama semea bisitatzera joan zenean, gitarra jotzen zuela esan eta horrela aurkitu zuen.</p>

11. Eskolapean gora eta behera

- **Erref:** LEK-054/018
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 00:21:04. **Bukatu:** 00:22:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

<p>Gaztetan, lagunak besotik hartuta Eskolapean zehar ibiltzen ziren paseoan. Eguena (osteguna) eta domeka (igandea) noiz helduko desiratzen egoten ziren dantzari egiteko. Dantzaldia bukatu eta segidan joan behar izaten ziren etxera; berandutuz gero, ama haserretu egiten zen.</p>

Transkripzioa

- Gero txabalatxuo ein giñenian, Eskolapian, hamen, hau Eskolapi kamiñuan automobilik be ez zan pasaten, hiru ta lau neska ta lagunak “del brazo” haratz ta honatz, buelta hortxe, kamiñuan, allaten giñin haurra puntara arte ta buelta, buelta haurtxe pasitan, allaaten jakuzen igual mutillak be ta... haurtxe buelta-bueltaka.

Ordun ez eguan ezer be ta, eguenetan, eoten zan musiki plazan ta domeketan. Ta desiten eguena allateko baltziun plazara juteko, plaza erdixan... ta domeketan be bai “y tenemos...” musikia amaittu artian, ez dakit /eztait/ ze ordutan amaittuko zan ordun ba... beatzixak, hamarrak edo... ze gure aitten hori e? amaittu artian plazan musikan, amaittuten danian miñutturik bez, segixan etxera, ta gure ama berandu dala ta igual protestan, baiña gure aitta modernutxugo zan...

12. Apaintzea; beti diru barik

- **Erref:** LEK-054/019
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:22:07. **Bukatu:** 00:23:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Apaintzea

Laburpena:

<p>Bere aita ama baino modernoago zen. Ezpainak margotu zituen lehenengo aldian amari ez zitzaion gustatu. Lehen permanenterako 12 pezetak aitak eman zizkion. Zuten diru apurrarekin Mari Gebararen dendan, Guzmendi dagoen tokian, hurrak erosten zituzten.</p>

Transkripzioa

-Lehelengo ezpanak pintta nebazanian, ene...gure ama... ezpanak pinttata, gure aittak esan eutsan lagunak eta be, bai bai ba lagunak eitten dabelako ba lagunak eitten badabe itxi zeuk be beoneri be ezpanak pinttaten. Ta lehelengo permanenterako diru be, aittak emon eustazan hamabi pezeta lehelengo permanenti eitteko.Txori txikiñik bez e? Hamen buelta-bueltaka ibiltten giñinian txori txikiñik bez. Errial bat edo bi edo eukauzenin Mari Gebarenera juan, gaur Guzmendi daon lekua, Mari Gebara. Ta abellanak emoten ebazan ez dakit errial bat edo errial bi ixaten bazan, tazan, tazi bete, bota papel de estrazara ta haretzek abellanak jaten. Gehitxuo baeukaun maspasa batzuk tartian. Zinerako dirurik bez... “dale vueltas ahí”

13. Lanaren truke zinema debalde

- **Erref:** LEK-054/020
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 00:23:07. **Bukatu:** 00:24:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

Bere ahizpa Beitia hotelean hasi zen beharrean errekaduak egiten; horren truke zinema debalde izaten zuten. Maria ere beragaz joaten zen debalde izateko.

14. "Zinema berdea" eta zentsura

- **Erref:** LEK-054/021
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:24:23. **Bukatu:** 00:26:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

Zineman ikusi zuten pelikuletako bat "La hija de Juan Simón" zen. Goraburuko zineman "La Dolorosa" ikusi zutenean, lagun batek zinema berdea ikusi zutela esan zioten, baina beraiek ez zuten "zinema berdeak" zer esan nahi zuen. Gero, elizan jarri zuten zinema eta zentsuraren arabera egoten ziren sailkatuta pelikulak. Mojek ere zigorra jartzen zuten eskolan, ikusitako pelikularen arabera.

Transkripzioa

-Ze pelikuli ikusten zenduen?

-Asko dakit neuk, zertzuk, orduan "La hija de Juan Simon" ta beste baten hau, ez, ordun debalde euki baiño arintxugo zan gerri amaittu ta ensegida zan. Goraburun. Zein zan, "La dolorosa", ta Jesusa Mendia, ta jun giñian ba zini ikusten: "La dolorosa". Bueno, urten gendun zinetik eta nun topaten dogun neure launa Anita Jauregi: oohhh..."La dolorosa" ikusten jun zarie... berdi da gero. Berde, zine berdi da gero. Berdia? Ezta! Betiko mouko kolori euki dau ta! Zelako iñuzientzixe, ta dana zan berdia porque "La dolorosak" solteratan euki eban umia, ta nobixuk itxi ei eban ta holakoxe española drama bat zan. Ta berdie. Gero bai, gero bakixu, elixan eoten zan gero ipiñitta, e hamazortzi urtetik eta beherakuntzako o iual erreixa bikua, batekua, ta hiru baeukazan, iñontzako bez. Bai, klasifikata eoten zirin zinik.

-Elixan ikusten zenduen?

-Elixan e..bai, papela ipiñitta eoten zan, ta klaro, debaldekua eualez ziñi, gure Konsuelo zinea jutun zan...ta ordun Konsuelo kolejixun ebillen, monjakin. Ta beti eoten dan lez pikoteraren bat, ba konta, Konsuelo ez dakit ze zinen eon da ta zinera jun da. Ta monjak kastigata, Konsuelo. Ta Konsuelo ez pentsa Monjia izan danik e monja-monjakixa e? Gure aldin espabilladi baiño, en todo!

15. Ura ordu betez baino ez

- **Erref:** LEK-054/024
- **Iraupena:** 0:02:48. **Hasi:** 00:27:56. **Bukatu:** 00:30:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

Laburpena:

<p>Errekan garbitzen zituzten arropak. Bizimodua gogorra zen eta behar asko egin behar izan zuten. Ezkondu ostean ere ez zuten inolako aurrerakuntzarik; egunean ordu betez baino ez zuten ura eta ondo aprobeixatu behar izaten zen. Errekak non zeuden azaltzen du.</p>

16. Garbitasun pertsonala balda barruan

- **Erref:** LEK-054/025
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:30:44. **Bukatu:** 00:32:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala

Laburpena:

<p>Txinbo xaboia erabiltzen zuten garbitasun mota guztietarako. Ilea garbitzeko ozpina erabiltzen zuten. Urez betetako balda barruan garbitzen ziren. Orduan ez zuten bainugelarik, komuna baino ez.</p>

17. Antzinako komunak

- **Erref:** LEK-054/026
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:32:44. **Bukatu:** 00:34:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:

<p>Komuna zelakoa zen azaltzen du. Hasieran eskailera izan zuten. Lehen eta azken solairukoek etxe barruan zuten, lehen solairukoek sukaldean zuten oiezko komuna. Papera beharrean egunkaria edo beste paperen bat erabiltzen zuten garbitzeko.</p>

18. 'Euzkadi' egunkaria

- **Erref:** LEK-054/027
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 00:34:24. **Bukatu:** 00:36:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Irakurtzea

Laburpena:

<p>Bere aitak Euzkadi egunkaria erosten zioten Iñaki Euzkadiri. Kalerik kale saltzen zuten. Gerraostean jada ez zen Euzkadi egunkaririk egon. Beste hainbat egunkari eta aldizkari ere bazeuden: La Gaceta del Norte, Ahora... Aitari irakurtzea asko gustatzen zitzaion eta Mariak beragaz ikasi zituen lehen letrak eta zenbakiak eta baita errezoak ere.</p>

19. Aitagandik jasotako liburuak

- **Erref:** LEK-054/028
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 00:36:16. **Bukatu:** 00:37:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Irakurtzea

Laburpena:

<p>Aitak irakurtzea gustuko zuen eta baita Mariak ere. Aitak oparitu zion bere lehen liburua Los viajes de Gulliver izan zen. Isabel II.a Lekeition egon zenekoa kontatzen zuen liburua ere bazuen.</p>

20. Eskolako kantan eta katona

- **Erref:** LEK-054/030
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 00:38:01. **Bukatu:** 00:39:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>Bere sasoian denek zekiten idazten eta irakurtzen. Biderketa-taula, Espainiako geografia... abestuz ikasi zituzten. Eskolan paperezko kartila izan zuten katona izan aurretik. Oraindik buruz dakizki katoneko lehen letrak.</p>

21. Errepublikan "Historia sagrada" eta gurutzea kendu

- **Erref:** LEK-054/031
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:39:32. **Bukatu:** 00:40:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra aurea » 1931-1936: II. Errepublika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala
- Politika » Jarrera politikoak » Errepublikanoak

Laburpena:

<p>Eskolan denetariko gaiak zituen entziklopedia zuten. Errepublika garaian, "Historia sagrada" atala artaziekin ebaki zieten eta hormako gurutzea ere kendu egin zuten. Errepublikako kafetegian bandera eta Gal´n eta Garciaren argazkiak eskegi zituzten.</p>

Transkripzioa

- Ta gero eskolan emon gaittuzten, ez dakit ba, entziklopedixa zan, bai, una... eskolan. Ta nire lagunak Mendienekuak, "un poco más pudientes", erosi ein eban harek, Klarita Mendik. Ta gero, Errepublikia etorri zanian, "Historia Sagrada" eta dana eukan berak liburuak, todo. Guri eskolako liburu zanari, hori, "Historia Sagrada" artazixakin, Errepublikia aillega zanian, kendu egin gaittuzten, artazixakin ebai eutsen. Eta harek euren liburu zan lez, ba, harek jostorratzaz eta harixaz harek paginak josi. Eta kruzifikua egoana kendu. Danok negarrez. Ta hamen aurrian hamentxe euan errepublikako kafia eta hantxe esegi eben banderia eta Galán eta Garcíaen erretratua ipini eutsen behian, banderiaren behian. Eskolatik... eta klaro eskolatik ikusten gendun. Eta banderia ez dakit nik zelako banderia ixaten zan... Española ixango zan, kontizu, ordun denporan, eskoletan-ta ixaten zana . Ta gero ez dakit... gero...
- Bandera republikanoa.
- Gero errepublikanua ixango zan?

22. Dotrina eta jaunartzea

- **Erref:** LEK-054/033
- **Iraupena:** 0:03:50. **Hasi:** 00:41:21. **Bukatu:** 00:45:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Sakramentuak

Laburpena:

<p>Errepublika garaian egin zuen lehen jaunartzea. Bikarioa bizi zen tokian, eliza atzean, ematen zuten dotrina eta bertara joaten ziren. Bi jaunartze egin zituzten: handia eta txikia. Klarinezko arropak zituzten bi oso-oso dotore joan ziren eta lehenengo ilaran jesarri ziren. Ez zuten inolako ospakizun berezirik egiten.</p>

23. Jostunak egindako arropa dotoreak

- **Erref:** LEK-054/035
- **Iraupena:** 0:03:12. **Hasi:** 00:46:46. **Bukatu:** 00:49:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

<p>Astegunetako eta domeketako arropak desberdindu egiten ziren. Jostunak egiten zizkieten arropak. Dotore jantzten ziren hiru ahizpak. Astegunetako arropak arruntagoak izaten ziren. Prakak ez ziren neskek janzteko.</p>

24. Barruko arropak

- **Erref:** LEK-054/036
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 00:49:58. **Bukatu:** 00:51:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

<p>Barruko arropak telaz egindakoak izaten ziren. Kuleroak ("pantaloiak") zinta batekin lotzen zituzten. Horiek ere jostunak josten zizkieten. Mutilen galtzontziloak luzeak izaten ziren, hotz asko egiten zuen-eta.</p>

25. Bularretakoak eta abarketak egiten zituztenak

- **Erref:** LEK-054/038
- **Iraupena:** 0:02:21. **Hasi:** 00:51:24. **Bukatu:** 00:53:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Zapatagintza

Laburpena:

<p>Bularretakoak Carmen Piñelek egiten zituen modeloa hartu eta gero. Abarketak astegunez janzten zituzten eta Patxi "abarkateruak" egiten zituen. Kanpotik etorritakoak ere saltzen zituzten plazan eta Patxik baino merkeago saltzen zituztenez, euren amak bertan erosten zituen abarketak. Diruari asko begiratzen zitzaion.</p>

26. Eskolako ikuskaritzak

- **Erref:** LEK-054/043
- **Iraupena:** 0:01:01. **Hasi:** 00:55:37. **Bukatu:** 00:56:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>Eskolara ikuskaria etortzen zenerako, maistrak ondo irakasten zien zer esan behar zuten: "¡Sea Usted bienvenido!" esaten zuten denak tente jarrita. Orduan ere ez zuten erdaraz egiten beraien artean.</p>

27. Maistra desterratu egin zuten

- **Erref:** LEK-054/044
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:56:38. **Bukatu:** 00:58:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

<p>Maistrek ez zekiten euskaraz eta eurek, oster, erdararik ez. Doña Eloisa maistraren gizona gerran kartzelaratu eta bera Lekeitiotik desterratu egin zuten. Euskaraz egitearren ez zuten zigortzen.</p>

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com